

Europar hizkuntz politika berrirako gomendioak

Marc Leprêtre

Hizkuntz azterketak egiten espezializatutako lau zentru Europako Komunitatearen Batzordearen eskariz egindako ikerketa lanen fruitua da honako artikulua hau. Euromosaic izenpean, Europako Komunitatearen hizkuntza minorizatua duten komunitate ezberdinen egoerari buruzko konparaketa analisi osoa eta zehatzari ekitea ez beste, baita ere -eta agian batez ere-, Europako hizkuntz politika berrirako oinarriak ezarri nahi ditu proiektu honek, azterketaren konklusioen eta Batzordean erabakitzen dutenei dagozkien gomendioak helaraztearen ondorioz. Lanetan ihardun dugun urte t'erdia luze honetan zehar, Europako Komunitateko partaide diren Estatu bakoitzean burutu dira ikerketak eta proiektuaren zehaztapen guztiak hona ekarri ezin baditugu ere, Europako instituzioek darabilten egungo hizkuntz politikaren esparruaren barnean hizkuntz komunitate minorizatuaren egoerari buruzko perspektiba laburra azaltzen ausartuko gara. Aldez aurretik argi utzi nahi dugu, proiektua bukatzeko beharrezko ditugun azterketa zehatz batzuk egiteke izanik, hemen emango ditugun datu eta azalpenak behin-behinekoak besterik ez direla.

This essay is the result of the research works carried out by four centres specialized in linguistic studies entrusted by the European Community Commission. Under the name of Euromosaic this project not only sought to carry out an exhaustive comparative analysis of the situation of the different minorized linguistic communities in the European Union, but also -and perhaps, above all- to establish the basis for a new European linguistic policy starting from the conclusions of the study and the resulting recommendations submitted to the decision takers in the Commission. For more than one and a half years the research works have been done in each and every one of the States members of the European Union and, although we cannot spread ourselves here about the details of the project, we dare to offer you a brief perspective of the situation in the minorized linguistic communities within the framework of the present linguistic policy carried out by the European institutions. Beforehand we want to show clearly that, lacking some concrete studies needed for the ending of the project, the data and commentaries we make here can only have a provisional character.

«Oro har, egungo egoera, Europako Estatu gehienek duela mende anitzetik hona burututako kultur eta hizkuntz bateratze epealdi luze baten ondorioa da»

*«Egoera minorizatu-
tuan dauden komuni-
tateetako kide
gehienek, ezkorta-
sunez egiten diote
aurre beren hizkun-
tzaren etorkizunari,
mundu modernoan
elkar konunikatzeko
erabat ezgauza
hautematen baitute
beren hizkuntza»*

Hizkuntza minorizatu en egungo egoerari buruzko oharra

Oro har, bere estatu partaidearen hizkuntza ofiziala edo nagusia ez den beste hizkuntza bat duten hizkuntz komunitateen egungo egoera, Europako Estatu gehienek duela mende anitzetik hona burututako kultur eta hizkuntz bateratze epealdi luze baten ondorioa da. Hizkuntza gehien en egungo diskriminazio egoerak -eta horren barnean Batzordeak eta Parlamentuak, Estatu en irizpide berdinak aplikatzen mugatzen dira hizkuntza ofizialak eta lanekoak hautatzeko orduan- aski ezagunak diren kontraesan ugari sortzen ditu.

Horrela bada, azterketa honetan antzemandako egoerak ez du ezaugarri oso itxaropentsurik adierazten. Ondorio horretaraino hainbat eragilek garamatzate, hala nola:

1.- Hizkuntz komunitate handiago zenbaitzutan, azken belaunaldian zehar familiaren barneko hizkuntz birsorkuntza bat-batean eten egin da, demografikoki ahulagoak diren talde gehienetan, askoz ere lehenago ezagutu duten arren egoera hori. Ohizko hizkuntz erabileren apurketak, hizkuntz gaitasunerako eskemak eta erabilera jarraibide ez erakargarriak ekarri ditu etorkizunari begira, kontutan izanik, ikertutako kasu gehienetan hizkuntza minorizatuak, nolabaiteko bizitasuna adinez nagusiagoko en artean besterik ez duela gordetzen, belaunaldi gazteagoek ostera, kasurik hoberenean, nolabaiteko gaitasun pasiboa gordetzen duten bitartean. Adibidez, Frantziako Katalunian egin berri diren inkesten arabera, Languedoc-en, Alsazian eta Greziako Beocia eta Atika albaniera hizkuntzadun eremuetan, datu hauek bete-beteen baieztatzen dira.

2.- Egoera honetan dauden komunitateetako kide gehienek, ezkertasunez egiten diote aurre beren hizkuntzaren etorkizunari, mundu modernoan elkar konunikatzeko erabat ezgauza hautematen baitute beren hizkuntza.

3.- Ikertu diren eremu ezberdinetan nekazal inguruko biztanleriak behera egin izana badirudi atzeraezinezkoa dela, gazteek geroz eta gehiago jotzen baitute industri gune eta hiri handietara, beren herrialdean dagoen ekonomi egoerak aukerarik ematen ez baitie enplegurik aurkitzeko, honek nekazal inguruko zenbait komunitate txikiren ia erabateko desagertzea dakarrelarik epe motzean.

4.- Eremu hauetako batzuetan, beren hizkuntzaz egiten ez duen biztanleri kopuruak gora egiten du etengabe, opor lekuak eta bigarren etxebizitzarako tokiak bertan jartzearen ondorioz. Honek sortarazten duen eragin ekonomikoaren

hizkuntz ondorioak jadanik nabariak dira Galesko iparraldeko nekazal eskualdeetan, Aran Ibarrean, Kataluniako Piriniotan eta Aosta Ibarrean.

5.- Mediterraneo aldeko hizkuntz komunitate minorizatu hainbatetan ikus genezakeen halabeharrak, diglosia maila handi bat adierazten du, hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititzearen etena eragiten duen faktore erabakiorra delarik, areago, mehatxatutako hizkuntza eta kulturaren aldeko herri mobilizazioa eragiteko muga ia gaindiezina da. Hala eta guzti, joera orokor honetan, ondoren deskribatuko diren gomendio batzuk egiteko aukera eman diguten salbuespenak ere somatu izan ditugu.

Alabaina, faktore baiezkorrek ere somatu ditugu, Europako instituzioen iharduketa ausarta eta egokiaren laguntza izanez gero, komunitate hauetarako aurrerapen garrantzitsua etorriko litzateke.

1.- Hizkuntz birsorkuntzari, eskolako elebitasun politika ausartakonura ekarri dion toki haietan, egoera arrasezberdina da, hizkuntzaren transmisio prozesua ziurrago den heinean, hizkuntzaren aldeko jarrerak sortzen baitira. Kasu batzuetan, era horretako politikari hain sendo ekin zaio azken hamar edo hamabost urteotan, ezen hizkuntz ekoizpena nabarmenki handitu baita, seme-alabei hizkuntza irakatsi ez zietenen lobek berriz ere landu baitute edo, Kataluniako kasuan bezala, berrogei urte inguru bertara iritsi zirenen seme-alabek, bertako hizkuntza lehen hizkuntzat hartu baitute.

2.- Oro har, lan merkatuan erabilgarritzat hartzen den hizkuntza baten prestigioa, zenbait lanpostu eskuratzeko betebeharrak bilakatzeari lotzen zaio erabat, adibidez, hizkuntzazko irakasle espezializatuen eskarirako (Euskal Autonomi Elkartearen kasua) edo helduentzat (Kataluniako kasua); bertoko irrati edo telebistarako kazetariak (Estatu espainiarrean edo Gales Herrian); Katalunian funtzio publiko iristeko edo Galesko iparralde eta mendebaldeko eskualdeetan.

3.- Bertoko telebistak, hala nola, SR4C Galesen, TV3 Katalunian, ETBEAEn edo Canal 9 Valentziako Komunitatean, ekonomiaren motore garrantzitsu bilakatu dira, beraien menpe dauden lanpostuengatik batipat. Gainera, kasu askotan, komunitate hauek lehen aldiz, bertako bizilagunak bartzatzen dituzten masa komunikabideak dauzkate eta komunitate dinamiko eta modernoaren partaide izatearen sentsazio atsegingarria eskaintzen diete, aurrez ezarria zitzaizen kultur

«Opor lekuak eta bigarren etxebizitzarako tokiak bertan jartzeak sortarazten duen eragin ekonomikoaren hizkuntz ondorioak jadanik nabariak dira Galesko iparraldeko nekazal eskualdeetan, Aran Ibarrean, Kataluniako Piriniotan eta Aosta Ibarrean»

«Oro har, lan merkatuan erabilgarritzat hartzen den hizkuntza baten prestigioa, zenbait lanpostu eskuratzeko betebeharrak bilakatzeari lotzen zaio erabat»

«Enpresa ugari beren publizitate kanpaina, logotipo, gutuneria eta kontsumitzailearekiko harremanak hizkuntza minorizatuan geroz eta gehiago egiten ari dira»

eta hizkuntz isolamendu sententzia indargetuz.

4.- Aurreko atalaren ondorio zuzena dugu publizitatearen merkatuaren zabalpena bere Estatu hizkuntza ofiziala ez den beste hizkuntza bateko milioika hiztun teleikuslerengana, eta honek enpresa ugari bultzatu ditu, beren publizitate kanpaina, logotipo, gutuneria eta kontsumitzailearekiko harremanak hizkuntza minorizatuan geroz eta gehiago egitera, noraino eta, komunitate jakin batzuetan hizkuntzak minorizazio estatusa gainditu egin baitu.

5.- Somatu dugu halaber ere, hizkuntza minorizatuen gaiaren ingurura hurbiltzean, aldaketa esanguratsua izan dela agin-tari ofizial zenbaiten aldetik eta Estatu hainbatetako hizkuntza nagusien hiztun gehien aldetik. Grezian 1993an (Lam-brakis Fundazioak eginak) eta Frantzian 1994an burututako inkestek adierazten dutenez (Haut Conseil pour les Langues Régionales de la France-k eginak), biztanleriak onarpen handiagoa azaltzen du hizkuntza minorizatuekiko. Agintariei dagokienez, inkesta horiek burutzearen egite hutsak eta nolabaiteko hizkuntz politika zirriborrateak lehen aldiz historian, jarrera aldaketa hori argi eta garbi azaltzen dute. Agintari publiko batzuen sentsiberatasun berria lege arloan ere antzeman daiteke, hizkuntzaren instituzionalizaziorako aspektu garrantzitsua dena.

6.- Ezin ahanzi europar esparruan burututako ekimenak, adibidez, Erregioetako edo Hizkuntza Minorizatuak buruzko Europako Konbentzioa (Europako Kontseilua) edo Killilea Txostena, Europako Parlamentuak onetsia 1994an. Ekimen horiek, gaiarekiko dagoen sentsiberatasun berri horren adibide argiak dira, gomendioak Estatu partaide bakoitzak nola garatzen dituen zain.

«Hizkuntza minorizatuen gaiaren ingurura hurbiltzean, aldaketa esanguratsua izan da agintari ofizial zenbaiten aldetik eta Estatu hainbatetako hizkuntza nagusien hiztun gehien aldetik»

Testuinguru honetan, komenigarri iritzi diogu hainbat hausnarketa egiteari Europako Elkarteko instituzioek hizkuntza minorizatuen tratamendu orokorraren beharrianaz eta gaiari hurbilpen berriari ekiteko itxuraz kontraesankor diren bi fenomeno aurrera eramateko, hau da: batetik, Estatu partaide kopuruaren gehikuntza, hizkuntza ofizial eta lanekoak gehitzea dakarrena, Europako Elkarteko hizkuntz zerbitzuetarako aurrekontuen gehikuntzarekin. Bestalderetik, irlandera, luxenburgera edo daniera (edo finlandera edo suediera) hizkuntzek baino hiztun gehiago duten komunitateak, europar instituzioen egungo hizkuntz politikaren ondorioz, geroz eta diskriminatuago sentitzen dira.

Europar hizkuntz politika berri baterako gomendioak

Hona dakartzagun gomendioek Euromosaic proiektuaren emaitzetan dute oinarria eta bertan formulatu izan dira Europako Elkartearen etorkizuneko bilakaera kontutan izanik. Europa mendebaldeko eta ertaineko merkatuen batasuna, mehatxu handia izango litzateke hizkuntz komunitate ahulentzat, instituzio europar desberdinek hizkuntz eta kultur politika modu berri bati ekingo ez baliote.

1.- Lehenik, ezinbestekotzat jotzen dugu Batzordeak bere ahaleginak berriz ditzan estatu partaide guztiek Erregioetako eta Hizkuntza Minorizatupei buruzko Europako Konbentzioa sinatu eta berrets dezaten, eta 1994ko Killilea Txostenak ematen dituen gomendioen aplikazioari ekin diezaioten.

2.- Komenigarri deritzogu, hizkuntz komunitate minoritarioak babesteko oinarrizko maila ezarriko duen arteztarau bat sortzeari ere, zuzenean aplikatzekoa Estatu partaide guztietan, administrazio publikoetan, hezkuntzan, komunikabideetan, lan merkatuan eta merkatal harremanetan gutxieneko hizkuntz eskubideak arautzearen ondorioz.

3.- Hizkuntz politika berri bat ezartzea beharrezkoa da, nekazaritza arloa eta erregioetako politika ekonomikoa zuzentzen duten ihardueren konpentsazio printzipio beretan oinarrituta, adibidez. Politika berri horrek, norabide aniztun hizkuntz planifikazioan izan beharko du funtsa, agintari publiko, erakunde akademiko eta profesional eta borondatezkoen elkarrekin arteko elkar iharduera proiektuei lehentasuna emanez. Aldi berean, komenigarri izango litzateke agintari ofizialek burututa edo lagunduta, Estatu partaide bakoitzaren heredentzia eleanizkoitzarekiko jarrera baikorrak eta Estatu etako berezko hizkuntz komunitate minoritarioekiko tolerantzia sustatzea helburu duten publizitate kanpainetarako laguntza sorta bat ezartzea.

4.- Hizkuntz komunitate bakoitzari dagokion informazioa lortzeko, prozesatzeko eta eguneratzeko, premiazkoa da mekanismo egokiak ezartzea. Ildo horretan, funtsezkoa izango litzateke sistema azkarraz eta sarbiderako on-line sistemaz baliatzeko aukera izatea. Europako Batzordeari proposatzen dioguna beraz, gaiari buruzko ikerketa proiektuetarako laguntzak ematea da, honako lehentasun hauen arabera:

a) Aldaketen norabidea eta norainokoa ebaluatzeko xedez aurreko ikerketak erantzun eta eguneratzeko azterlanak.

b) Hizkuntz komunitate ezberdinei buruzko ikerlanen egungo egoera osotuko duten lanak.

«Komenigarri deritzogu, hizkuntz komunitate minoritarioak babesteko oinarrizko maila ezarriko duen arteztarau bat sortzeari»

«Komenigarri izango litzateke agintari ofizialek burututa edo lagunduta, hizkuntz komunitate minoritarioekiko tolerantzia sustatzea helburu duten publizitate kanpainetarako laguntza sorta bat ezartzea»

c) Europako Elkarteko barne mugak desagertzeak duen eragina -benetakoa eta litekeena- neur dezaten lanak.

d) Garrantzi demografikoa edozein izanda ere, gutxi aztertu diren hizkuntz komunitateak ikertzeko lanak.

«Erabat alboraezina da, hizkuntza minorizaturik duten komunitateekiko harremanetan zaindu behar dituen gutxieneko baldintza eta eskubideak ezar ditzaten Europako Elkarteko instituzioek»

Horrela bada, erabat alboraezina da, Estatu partaide bakoitzak hizkuntza minorizaturik duten komunitateekiko harremanetan zaindu behar dituen gutxieneko baldintza eta eskubideak ezar ditzaten Europako Elkarteko instituzioek. Izan ere, gure proiektuan zehar, oso aztarna argiak aurkitu ditugu hizkuntza minoritario batzuk agintari ofizialek sistematikoki baztertu egiten dituztela baieztatzeko, existituko ez bailiran. Kasu hauetan, ezinbestekoa da komunitate horiei subsidiaritate printzipioa aplikatzea, era horretan, Europako Elkarrean, Estatu partaideek baino hobeto bermatu ahal izango bailituzke minorien eskubideak, herritar europarren eskubideen bateratasun hobe baterako izango delakoan.

Marc Leprêtre

Euromosaic Taldea

Institut de Sociolingüística Catalana

Euromosaic Equipment

Catalonian Institute of Sociolinguistics

Itzultzailea: Maite Alvarez